

ETXARRI ARANAZKO FESTETAKO KARTEL LEHIAKETA 2016

HELDUEN KATEGORIA. OINARRIAK

1. GAIA

ETXARRI ARANAZKO FESTAK 2016

2. NORI ZUZENDUA

16 urtetik gorako pertsonen. Edonork har dezake parte. Parte Hartzaile bakoitzak norberak egindako lan bat aurkeztu dezake, baztertuak izanen dira, erabat edo zatika, argazki, kartel, pintura eta abarren plagioak.

3. KARTELAREN EZAUGARRIAK

3.1. Kartelen honako testu hau agertu behar da ezinbestean: **ETXARRI ARANATZ FESTAK 2016**

3.2. Obrak egiteko era librekoa izango da. Irabazleak multimedia teknikak erabili baditu, Udalak saritua izan den obraren kopia digitala eska diezaioke, inprimatzeko bereizmen handiarekin.

3.3. Tamaina: DIN A3 (42cm x 29.7cm) edo 70 cm-ko altuera x 50 cm-ko zabalera izan behar dituzte, derrigorrez.

3.4. Euskarri gogor batean aurkeztuko dira.

4. KARTELAREN AURKEZPENA

4.1. Epea: Kartelak Etxarri Aranazko Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira 2016ko uztailaren 1eko 14:00ak baino lehen. Epea luzaezina izango da.

4.2. Prozedura: Egileek sinadurarik gabe eta beraiek aukeratutako lemapean aurkeztu behar dituzte kartelak. Lema kartelaren atzealdean jarri behar da idatzita. Horrekin batera gutun-azal bat aurkeztu behar da; kanpoan, kartelaren atzealdean idatzitako lemarekin eta barruan, egilearen datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea, tel. eta jaiotze data).

5. KARTELEN BUELATZEA

Lehiaketa bukatu ondoren, hilabete bateko epea izango dute lehiakideek kartelak jasotzeko.

Saritutakoa, ordea, baldin balego, Udalaren esku geratuko da. Hilabetea pasatu ondoren jaso ez diren kartelak ere Udalaren esku geratuko dira, egileek uko egiten diela eta erreklamatzeko edo kalte ordainik jasotzeko eskubidea galtzen dutela ulertzen delako.

6. EPAIMAHAIIA

Etxarri Aranazko Kultura sailak izendatuko dituen pertsonen osatuko dute epaimahaia. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Epaimahaiak eman gabe utzi dezake saria. Epaimahaiakideek eta bere familiakoek ezin dute lehiaketan parte hartu.

7. SARIA

250 €ko sari bakarria banatuko da. Epaimahaiak saria hutsik uztea erabaki dezake.

8. JABETZA

Kartel sarituaren jabetza Etxarri Aranazko Udalarena izango da. Horregatik, Udalak saritutako kartelei nahi adina kopia litografiko edo beste motatakoak egiteko eskubidea hartzen du, nahi duen erabilerarako. Eta beraz, egileek ezin izango dute erreklamaziorik egin. Sariaren bidez, Etxarri Aranazko Udala saritutako kartelaz jabetzen da, eta hari dagozkion izaera ekonomikoari buruzko jabetza intelektualeko eskubideez ere, hau da, kopia, banaketa, jakinarazpen publikoa eta itxuraldaketa, betiere Jabetza intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 26. artikulua ezarritako epearen barruan, halako maneran non Udalak eskubidea izango baitu lana edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukituzko batean aurkezteko, bai eta merkataritza helburuekin lana banatu edo jendaurrean jartzeko ere. Espresuki barne hartzen ditu, baita ere, lanak hala on-line eran nola Internet motako sare digital elkarreragileen bidez eman eta igortzea.

9. BALIZKO ERAKUSKETA

Udalak parte hartu duten kartel guztiekin edo batzuekin erakusketa egiteko eskubidea hartzen du; erakusketen tokia, data eta ordutegia bere garaian jakinaraziko ditu. Horrela balitz, erakusketa bukatu eta hilabete batera itzuliko dira kartelak.

10. OINARRIEN ONARPENA

Lehiakideak oso osorik onartzen dituzte oinarri hauek.

